



PLT-C-2019-0004
JZ/ld

**PRESKIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, ERREIAK ETETEAN EDO
BY-PASSAK EZARTZEAN SEGURTASUN ELEMENTU GISA
BALIATZEKO BEHIN-BEHINEKO EUSTE SISTEMAK
HORNITZEKO KONTRATUARENA**

3-SM-6/2019



PLT-C-2019-0004
JZ/ld

Aurkibidea

1. PRESKRIPZIO OROKORRAK	1
2. AURREKARIAK	1
3. KONTRATUAREN XEDEA	2
4. HORNIDURAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK	2
5. ZAMAKETARAKO ETA GARRAIORAKO BALDINTZAK.....	3
6. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA	3
7. DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK	3
8. ESKAERAK ETA ENTREGATZEKO EPEA	3
9. PREZIO LINEALA ETA EUSTE SISTEMAREN LUZERA.....	4
10. NEURTZEKO MODUA ETA ORDAINKETA	4
11. KONTRATUA ALDATZEA. MUGAK	4
12. KONTRATUAREN PREZIOA	5
1. ERANSKINA: UNITATEKO PREZIOAK (BEZ GABE)	i
2. ERANSKINA: AURREKONTUA (% 21 BEZ BARNE)	ii



PLT-C-2019-0004
JZ/lđ

1. PRESKRIPZIO OROKORRAK

Plegu honen helburua honako hau da: ERREIAK ETETEAN EDO BY PASSAK EZARTZEAN SEGURTASUN ELEMENTU GISA BALIATZEKO BEHIN-BEHINEKO EUSTE SISTEMAK hornitzeko kontratua arautuko duten preskripzio tekniko partikularrak zehaztea.

Agiri honen helburuak dira, halaber, honako hauek: egingo diren lanak deskribatzea eta aztertuko diren materiak zenbatzea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) Bide Azpiegituretako Departamentuaren hornidura kontratua arautuko duten baldintzak eta irizpideak finkatzea.

Preskripzio agiri honetan islatuaz gain, ulertuko da esandako behin-behineko euste sistemaren hornidura indarrean den lege xedapenen arabera beteko dela, eta, era berean, kontuan hartuko direla lizitatuko den horniduraren edukiarekin lotutako araudiak eta jarraibide teknikoak.

2. AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundia arduratzen da errepide sare bat proiektatzeaz, eraikitzeaz eta ustiatzeaz; hori dela eta, ezinbestekoa izaten da etenak egitea eta by-passak ezartzea, erabiltzaileen, langileen eta instalazioen segurtasuna bermatzeko.

Lan horien barruan, datozen urteetan A15 autobideko tunelen instalazioak eguneratzea dago aurreikusita, hainbat eskakizun betetzeko haietan barrena zirkulatzen duten erabiltzaileen gutxieneko segurtasuna bermatzearen.

A15 autobideko tuneletako instalazioak berritzeko lan horiek eta sor litezkeen beste zenbait egin ahal izateko, ezinbestekoa da by-pass bat sortzea, segurtasun-baldintzak bermatuko badira.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztu du beharrezkoa dela behin-behineko euste sistema batzuk izatea, obrak egin bitartean segurtasun elementu gisa ipintzeko; izan ere, lanon iraupena dela eta, zenbatesten da ez dela beteko 8.3-IC Instrukzioa ohiko elementuekin (konoekin, alegia).

Horrenbestez, lizitazio honen xede nagusia horniduraren lizitazioa da, dokumentu honetan zehar estipulatuko diren alderdien arabera.



PLT-C-2019-0004
JZ/lid

3. KONTRATUAREN XEDEA

Espediente honen helburua honako hau da: Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen errepide-sarean erreiak etetean edo by-passak ezartzean segurtasun elementu gisa baliatzeko behin-behineko euste sistemen hornidura kontratatzea.

Horrez gain, haien zamaketa lanak egiteko osagai batzuen hornidura ere biltzen da.

Preskripzio agiri honetan, esandako hornidura arautzeko baldintza teknikoak zehaztuko dira, baita kontratua eskuratu nahi duten enpresek euren eskaintzetan bildu beharreko baldintzak ere.

4. HORNIDURAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Zenbatetsi denaren arabera, hornitu beharreko euste sistemak CE marka izan behar du, eta, gainera, honako ezaugarri tekniko hauek bete behar ditu:

1. Material berriz egindako euste-sistema izan behar du, hau da, lehenago erabili ez dena.
2. Gutxienez H1 euste maila izatea.
3. B klaseko ASI bat izatea.
4. Lanerako zabalera W6 edo txikiagoa.
5. Ezaugarri eta dimentsio berberak dituzten barreraz edo piezaz osatuta egotea euste sistema. Gainera, amaierako elementuak ere eduki ahalko ditu, muturretan instalatuta.
6. Euste sistemak ez edukitzea 8 metrotik gorako piezarik.
7. Euste sistema ez izatea 70 cm baino gehiago zabalean.
8. Haren egiturak baimendu behar du 25 t-ko kamioi batean garraiatu ahal izatea, plataformarekin eta gutxienez 48 metroan, eta esandako garraioa ezingo da izan garraio berezia.
9. Euste sistemak balizaje sistema bat edukitzea. Sistema hori argi-islagailu kaptadioptikoaren sistema baliokide batek osatuta egongo da. Goiko aldean edo bi aldeetan egongo dira instalatuta, lau metrotik behin gutxi gorabehera, eta bikoiztuta egon beharko dute. Balizaje-sistema ezingo da 40 mm baino gehiago irten euste sistematik. Horrez gain, pintaketa kapa bat bildu beharko du, ahal dela oinarrian, balizaje sistema indartzeko.
10. Bata bestearen gainean jartzeko modukoak izatea, obran erabili ostean, eta ez hartzea 600 metro koadro baino gehiago gure basean.



PLT-C-2019-0004
JZ/ld

11. Haren egiturak eta geometriak posible egin behar du euste sistemen zamaketarako pintza osagai baten bidez instalatu ahal izatea. Pintza sistema horrek gutxienez 4.200 kg-ko karga edukiera izango du.
12. Hornitu beharreko euste sistema autobideko bide zoruaren gainean ipiniko da, eta aurkeztu beharreko CE markatzeak berezitasun hori bete beharko du. Sistema lurrera konektatzeko aukera sistema osoaren hasierako eta amaierako tartean bakarrik onartuko da, muturreko elementuetan, alegia.

Atal honetan adierazitakoak betetzearen bideragarritasuna zuritzeko, dokumentazio grafikoa eta ezaugarri teknikoen taula bat aurkeztu beharko dira.

5. ZAMAKETARAKO ETA GARRAIORAKO BALDINTZAK

Adjudikaziodunak Andoaingo basean hornitu beharko du euste sistema (Agaraitz auzoa, 20150, Andoain, Gipuzkoa), zeina Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa baita.

6. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA

Erreferentziako araudi gisa, honako hauek hartuko dira:

- 8.3.-IC Instrukzioa. Obretako behin-behineko seinaleztapenak.
- UNE EN 1317 araua.
- 35/2014 Agindu Zirkularra, ibilgailuen euste sistemak aplikatzeko irizpideei buruzkoa.
- Errepideetako obretan segurtasun eta osasun azterlanak egiteko gomendioak (Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministerioa).
- Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3).
- AIPCR/PIARC erakundearen gomendioak.

7. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Hornidura hasi baino lehen, adjudikaziodunak honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu beharko du:

- a) Hornitu beharreko produktuaren fitxa teknikoa.
- b) Hornitu beharreko produktuak eskatutako espezifikazioak eta fitxa teknikoak tipifikatutako ezaugarriak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.



PLT-C-2019-0004
JZ/lid

8. ESKAERAK ETA ENTREGATZEKO EPEA

Kontratua sinatu ostean, adjudikaziodunak 12 aste izango ditu material guztia erabat hornitzeko. Hornidura hori, “5.- ZAMAKETA ETA GARRAIORAKO BALDINTZAK” atalean jasotako moduan, Andoaingo basean egin beharko da (Agaraitz auzoa, 20150, Andoain, Gipuzkoa), zeina Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa baita.

9. PREZIO LINEALA ETA EUSTE SISTEMAREN LUZERA

Behin-behineko euste sistemaren metro linealaren prezioaren barruan, jasota daude egokiro lortzeko beharrezko kontzeptu guztiak, hala nola fabrikazioa, oinarriko zerrenda margotzea, garraioa eta deskarga, balizaje islatzailearen sistemaren zati proportzionala eta haien funtzionamendu egokia ahalbidetuko duten beharrezko pieza guztiak, CE markaketak zehazten dituen baldintza guztiak betetzeko.

Metro linealaren prezioa gehienez ere 258,62 € izango da.

Bestalde, zehaztu da euste sistema hornitzeko beharrezko metroak 2.376,00 direla. Haien barruan, beharrezko barrera terminalen unitateak daude bilduta.

10. NEURTZEKO MODUA ETA ORDAINKETA

Hornitutako barrera tartekak metrotan neurtuko dira, jasotako hartu-agirian zehaztuta dagoenaren arabera. Horrez gain, egiaztatuko da jaso direla ahokatzeko eta eusteko gailu guztiak, instalatu ahal izateko.

Halaber, baieztatuko da jaso direla zamaketa lanetarako pintzak.

Ordainketa bakarra egingo da, euste sistema eta zamaketa lanetarako pintza osagarria hornitu, garraiatu eta ipini ondoren.

11. KONTRATUA ALDATZEA. MUGAK

Kontratuaren neurketa gutxi gorabeherakoa da, eta tankera bereko obretan egindako by-passen ezaugarriak hartu dira kontuan kalkulurako. Eskaria egin aurretik egin ahal izango den azterlan xehatuago baten bidez, informazio gehiago eskuratu ahalko da egiazko luzera premiei buruz; hori dela eta, neurketa hori aldatu ahal izango da, gehienez ere esleitu den neurriarekiko % 20ko mugarekin.



PLT-C-2019-0004
JZ/lđ

12. KONTRATUAREN PREZIOA

Preskripzio agiri honen xede den lanaren aurrekontua gehienez ere ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (759.250,80 €) izango da, % 21ko BEZ BARNE

Donostia, 2019ko otsaila

TELEKOMUNIKAZIOETAKO

INGENIARIA

Sin.: Jon Zuazua Guerricagoitia

BIDE ARTAPENEN ETA KUDEAKETAKO

ZERBITZUBURUA

Sin.: Iñigo Zufiria Zatarain



PLT-C-2019-0004
JZ/d

1. ERANSKINA: UNITATEKO PREZIOAK (BEZ GABE)

PREZIOA	KONTZEPTUA	PREZIOA
ZK.		UNITARIOA (€)
	ERREIAK ETETEAN EDO BY PASSAK EZARTZEAN SEGURTASUN ELEMENTU GISA BALIATZEKO BEHIN-BEHINEKO EUSTE SISTEMAK HORNITZEA	
1.1	Behin-behineko euste sistemaren metro lineala, honako hauek barnean hartuta: fabrikazioa, garraioa eta esandako tokian ipintzea, balizaje islatzailearen zati proportzionala eta beharrezko pieza guztiak, egokiro funtziona dezan, CE markaketak eskatzen dituen baldintza guztiak betez.	258,62
1.2	Euste sistemaren zamaketa lanetarako pintza osagarria.	6.500,00



PLT-C-2019-0004
JZ/ld

2. ERANSKINA: AURREKONTUA (% 21 BEZ BARNE)

ZK.	NEURKETA	KONTZEPTUA	UNITATEKO PREZIOA:	GUZTIRA (€):
		BEHIN-BEHINEKO EUSTE SISTEMEN HORNIKUNTZA, SEGURTASUN ELEMENTU BEZALA ERABILTZEKO ERREILAK EDO BY-PASSAK MOZTEKO		
1.1	2.376	Behin behineko euste sistemaren metro lineala, honako hauek barnean hartuta: fabrikazioa, garraioa eta esandako tokian ipintzea, balizaje islatzailearen zati proportzionala eta beharrezko pieza guztiak, egokiro funtziona dezan, CE markaketak eskatzen dituen baldintza guztiak betez.	258,62	614.480,00
1.2	2	Euste sistemaren zamaketa lanetarako pintza osagarria	6.500,00	13.000,00
		GUZTIRA		627.480,00
		BEZ (% 21)		131.770,80
		KONTRATA BIDEZ GAUZATZEKO AURREKONTUA (BEZ BARNE)		759.250,80